

6. ANIMALIAK LORENTXOREN SARRERAKO GUTUNA

Kaixo, zeeeeer moduuuuuz?

Non zaudete? Ni hemen nago, oso urrutí, baina zuek lasái, noízean behin izango duzue nire berri-eta.

Baina, nik zuen berri ere izan nahi dut. Zein egun da gaur? Nolako eguraldia egiten du? Zer ordu da? Zer jan duzue? Erantzun, erantzun, ez geratu isilik.

Ondo da, eta gaur, zer ekarri dut zuentzat? Pentsatuko duzue: honek dauka galderak egiteko gogoá, je,je,je. Badakizue, jakiteko galderak egin behar díra. Ba, gaurko proposamena animaliak ezagutzea da. Batzuk ezagutuko ditugu, denak ez, asko díra eta!

Non bízi díren ikusiko dugu, zelako hotsak ateratzen dituzten, zelakoak díren, zein animalia dagoen Iratí eta Beñaten baserrian.

Gustatzen zaizkizue animaliak? Beñatek eta Iratik Argi daukate etxean, eta zuek, baduzue animaliarik etxean? Kontatu gelakoei.

Hasi, hasi dena prestatzen eta ea zer antolatzen duzuen!

Ondo izan eta
laster arte!

